

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure harremana bezeroarekiko zuzena izango printzipioz, nahiz eta gu ez garen presentzialki bezeroekin egongo, sortzaileak izango garelako gure markaren aurpegia, hau da, guk aurkeztuko ditugu gure proiektu guztiak, eta gure bideoetan ere agertuko gara.

Gainera guk zuzenduko ditugu gure sare sozialetako kontuak, non argazkiak, promozioak, proiektu berriak etab. igotzeaz gain, bezeroen mezuak entzun eta erantzungo ditugu, beraz haiekin kontaktua mantenduko genuke era batean edo bestean.

Honez gain, lehenago azaldutako moduan, gure asmoa herrialde pobreetara denbora bat joatea, bertako behardunak laguntzeko da, haiekin denbora bat pasatzeko eta bideo promozional eta kontzientziatzaileak egiteko, non pertsona asko ezagutuko ditugu eta haiekin denbora pasa ere.

Bukatzeko, beste enpresa edo elkarteekin negoziatzeko orduan gu izango gara batzarretara joango garenak etab.

Gure proiektua sustatuko duten guztiekin harreman minimo bat izatea da ideia, adibidez sare sozialetan inkestak eginez non gure bezeroengandik, gure produktuen balorazioak edota ideia berriak jaso ahalko ditugu. Honen bidez denbora denean bezeroekin kontaktuan egongo gara, eta gure mugimendu guztiez informatuta egongo dira.